



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2016/07/15

Gaur egungo baldintzei esker, mahastia behar bezala garatzen ari da. Loraketa eta, gero, fruitua ondo gauzatu dira, eta hori eta ale ugari dagoela ikusita, uzta handia izango dela iragarri daiteke.

Azken txostenetik hona ez da meteorologia gorabehera aipagarrikerik izan; bakar-bakarra, ekaina oso lehorra izan dela.

Fenologiari dagokionez, mahastiak une honetan K egoeran (ilar neurriko aleak) eta L egoeran (mahats mordo itxia) daude, eta sasoi honetarako normaltzat jo daiteke hori.

Hauxe da unea, loratzetik mahats mordoak ixtera bitartekoa, zeinetan mahastia kalteberen den zurin edo oidioaren erasoaren aurrean, gaixotasuna garatzeko arriskua sortzen duten baldintzak (gau hotzak) izaten baitira. Nabarmentzekoa da “errauts” gunek daudela lurzati bakan batzuetan, kasu askotan produktuak behar bezala ez ematearen ondorioz, eta ez dira hostoen azalera osora iritsi. Denbora batez mahastia babestuta izan beharko da, eta produktuak aldatu beharko dira, erresistentziarik sortu ez dadin. Kontu izan sufrea ematean: izan ere, tenperaturak gora egiten badu, erredurak eragin ditzake mordoan. Lurzati kalteberetan bereziki, mahats mordoaren inguruko kimu berriak kimatzeak eta hostoak kentzeak erraztu egiten dute aireztatzea eta fitosanitarioak sartzea. Hala ere, ez da komeni hosto gehiegi kentzea, mordoa eguzkiaren eraginpean ageriegi gera ez dadin.

Gorri edo mildiaren lehen mailako erasoren bat gertatu da hostoan, bai eta larbatua ere mordoetan, baina klima baldintzei esker (hezetasuna eta tenperatura) ez du kalte esanguratsurik eragin. Kobrea oinarrian duten produktuak erabiltzen jarraitu daiteke, euria eta beroa direla eta tratamendu gogorragorik egitea komeni ez den bitartean.

Izurriei dagokienez, laster sitsaren bigarren belaunaldiaren hegaldia hasiko da. Mahasti bateko mordoan % 10 baino gehiagotan arrautzak badaude, komeni da tratamendua ezartzea, halako izurri batek eragina izan baitezake kalitatean. Oraintxe da une egokia Arabako Errioxan.

Erinosi ugariak ez luke arazo handirik eragin behar aurrerantzean.

Ez da armiarma horiaren zantzurik ikusi.

Finka batzuetan eltxo berdearen eta trips intsektuen erasoak ikusi dira, baina ez da gomendagarria halakoak tratatzea, ikusteko moduko kalterik eragiten ez badute behintzat.

Nolanahi ere, baldin tratamenduak egiten badira, komeni da sitsaren kontra eraginkorrak diren gai aktiboak erabiltzea (2. belaunaldiaren hegaldia hasten denean).

Laburbilduz, gaur egun, mahastiaren egoera bikaina da; oidioaren eta mildiaren aurrean erne egon behar da, hori baino ez. Lehenengo gaixoaldian batez ere, eta bigarrean, meteorologia baldintzak aldatuz gero.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua